



1. ZUZENKETA ALDATZEKOA

Zioen azalpeneko I. Tituluko 2. paragrafoa aldatzea proposatzen da.

Esaten duenean:

[...] Aurreko guztiari biztanleriaren zahartzea gehitu behar zaio, Euskal Autonomia Erkidegoan bereziki kezkatzekoa dena, aldaketa demografiko oso garrantzitsuak ekarriko baititu, eta horrek eragina izango du hezkuntza-sistemaren plantillan. Halaber, bizi-itzaropena luzatzearen ondorioz, baliabide publikoak berrantolatzea ere eskatuko du, eta zaintza soziosanitarioetan inbertsio handiagoa ez ezik, bizialdi osoko ikaskuntzan ere jarriko du arreta, lege honen xedeari dagokionez. [...]

Esan behar du:

*[...] Aurreko guztiari biztanleriaren zahartzea gehitu behar zaio, Euskal Autonomia Erkidegoan bereziki kezkatzekoa dena, aldaketa demografiko oso garrantzitsuak ekarriko baititu, eta horrek eragina izango du **irakaskuntza-taldeetan eta inplikaturako profesional guztiengan**. Halaber, bizi-itzaropena luzatzearen ondorioz, baliabide publikoak berrantolatzea ere eskatuko du, eta zaintza soziosanitarioetan inbertsio handiagoa ez ezik, bizialdi osoko ikaskuntzan ere jarriko du arreta, lege honen xedeari dagokionez. [...]*

Zioa: hainbat profesional eskolan eta hezkuntza-sistema osoan sartzea gizarte-komplexutasuna areagotzearen ondorio izan da.



2. ZUZENKETA GEHITZEKOA

Zioen Azalpenaren II. tituluari "eta zertarako" esamoldea gehitzea proposatzen da. Lege berri baten zergatia. Honela idatzita geratuko litzateke:

II. ZERGATIK ETA ZERTARAKO LEGE BERRI BAT

Zioa: zergatia Hezkuntzari buruzko Lege berria idazteko arrazoiei dagokie, eta zertarakoa, berriz, lortu behar ditugun helburuetarantz.



3 . ZUZENKETA, ALDATZEKOA

Aldatu egiten dira zioen azalpeneko IV. HEZKUNTZA ELEANITZA ETA KULTURARTEKOA zatiaren gaztelaniazko izenburua eta bigarren parrafoa.

Hau dioen lekuan:

IV. HEZKUNTZA ELEANITZUNA ETA KULTURARTEKOA

[...]

Euskal hezkuntza euskara ardatz duen sistema eleaniztun gisa egituratzen da, eta bi hizkuntza ofizialen bidez eta atzerriko hizkuntza baten bidez, gutxienez, antolatzen da, gizarte-koheretia eta herritarrek bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna bermatzeko. Lege honek posible egin nahi du ikasle guztiek, familia-jatorria edozein dutela ere, ikasketak amaitzean bi hizkuntza ofizialak maila berean ezagutzea eta, horretaz gain, gutxienez atzerriko hizkuntza baten ezagutza izatea.

Hurrengoa esan behar du:

IV. HEZKUNTZA ELEANITZUNA ETA KULTURARTEKOA

[...]

Euskal hezkuntza euskara ardatz duen sistema eleaniztun gisa egituratzen da, eta bi hizkuntza ofizialen bidez eta atzerriko hizkuntza baten bidez, gutxienez, antolatzen da, ikasketak bideratuko dituztenak, gizarte-koheretia eta herritarrek bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna bermatzeko. Lege honek posible egin nahi du ikasle guztiek, familia-jatorria edozein dutela ere, ikasketak amaitzean bi hizkuntza ofizialak maila berean ezagutzea eta, horretaz gain, gutxienez atzerriko hizkuntza baten ezagutza izatea.

Justifikazioa: Ikasketak-hizkuntza guztien izaera bideratzailea txertatzen duen zuzenketa. Zuzenketa okerra gaztelaniazko izenburuan.



4. ZUZENKETA GEHITZEKOA

Talde profesionali V. Tituluko – Legearen Zioaren 4. Paragrafoaren idazketan eranstea proposatzen da. Honela idatzita geratuko litzateke:

Lege honen III. tituluak garrantzi eta hedapen bereziko esparru material bat du xede: Euskal Hezkuntza Sistemaren gobernantza instituzionala. Bertan, hainbat alderdi garrantzitsu lantzen dira, hala nola plangintza estrategikoa, programa-kontratuak, ikastetxeen gobernu eta zuzendaritza, gobernu- organoak ikastetxeen tipologiaren arabera zehaztuta, eskola kontseiluen arkitektura gobernantza-eredu batean parte hartzeko bide instituzional gisa, eta, azken batean, hezkuntza-komunitatearen beraren eginkizuna, bereziki ereduaren eragile nagusi diren ikasle, irakasle, **talde profesional** eta familiaena.

Zioa: inklusioan beste profesional, diziplina eta lanpostu batzuk oso garrantzitsuak dira, ez bakarrik irakasleak.



5. ZUZENKETA, GEHITZEKOA

Zioen azalpenean testu hau gehitzen da, eta honela idatzita geratzen da:

V. LEGEAREN EDUKIA

[...]

IV. tituluak, berriz, hizkuntzek Euskal Hezkuntza Sistemari duten tokia arautzen du, gai garrantzitsua inondik ere. Gai hau zioen azalpen honetan jada jorratua dago, batez ere Legeak finkatzen duen sistema eleaniztun eta kulturartekoaren ardatz gisa euskarak duen zereginari dagokionez. Horri buruz ari da I. kapituluak, eta bertan jasotzen dira orobat komunitate eleaniztun eta kulturantzunen inguruko arau-aurreikuspen jakin batzuk, baita euskal hezkuntzan hizkuntza ofizialek eta atzerriko hizkuntzek elkarren artean duten harremanari buruzkoak ere. Hori guztia ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-proiektuan egituratu behar da, Gernikako Estatutuan eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen II. tituluko II. kapituluaren ezarritako eskubide aitortuak eta printzipioak barne hartzen dituen esparru komun baten barruan, unean-unean indarrean dauden hizkuntza-ereduen sistemari oinarrituta, eta horien edozein garapen edo eguneratze erregelamendu bidezko garapenaren bidez egingo dela ziurtatuz, eskubide eta printzipio berberak bermatuz. Erregelamendu bidezko garapen horren arabera, ikastetxe bakoitzeko hizkuntza-proiektuetan, hizkuntzen ikaskuntza, erabilera eta ikasleen jarrera positiboa planifikatu behar dira, ingurune bakoitzaren abiapuntua eta ezaugarri soziolinguistikoak eta sozioekonomikoak kontuan hartuta, ikasleen eta haien familien ezaugarri espezifikoak barne; ikasleek hezkuntza-etapa bakoitzaren amaieran eskatzen diren hizkuntza-maila eta gaitasunak eskura ditzaten lortuz. Ikastetxeko hizkuntza-proiektuak ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak irakasteko eta erabiltzeko irizpide pedagogikoak garatu behar ditu.

III. kapituluak irakasleen eta irakasle ez diren langileen hizkuntza-gaikuntza indartzeko modua aztertzen du. Irakasleei dagokienez, hizkuntza-gaikuntza hobetzeko neurriak proposatzen dira, baita atzerriko hizkuntzen irakaskuntzarako duten gaikuntza hobetzekoak ere. Eta, azkenik, IV. Kapituluaren xedea da ikastetxeetan eta pertsonen arteko harremanetan euskararen erabilera soziala eta ingurunekoa bultzatzeko zenbait printzipio eta neurri ezartzea...



6. ZUZENKETA GEHITZEKOA

V. Tituluko –LEGEAREN EDUKIA– 8. Paragrafoari “eta premia” esamoldea eranstea proposatzen da. Honela idatzita geratuko litzateke:

Ekitatea eta bikaintasuna hezkuntza-erlaldaketako prozesuaren funtsezko bi alderdi dira. Gizarte-kohesioa abagune **eta premia** bat da, lege honek euskal eskola inklusiboaren alde egiten duen apustuaren ildotik. Bikaintasuna, halaber, Euskal Hezkuntza Sistemaren zutabeetako bat da. Euskal Hezkuntza Sistemaren mailakako erlaldaketaren oinarriak ezartzea helburu duen lege baten esparruan, V. titulua giltzarria da, zeren xedea baitu tresna eta lanabes instituzionalen multzo bat antolatzea, hezkuntza- eredu hobetzeko eta testuinguru bakoitzari etengabe egokitzeko prozesuari begira. Beraz, I. kapituluak ibilbide eraldatzaile horri ekiteko behar den premisetako bati heltzen dio: hezkuntza-berrikuntza eta, horrekin batera, sailaren plangintza estrategikoa behar bezala prestatzeko bide gisa prospektibak duen garrantzia.



7. ZUZENKETA ALDATZEKO

7.1. artikulua idazketa aldatzea proposatzen da.

Esaten duenean:

7. artikulua. Elkarrekin bizi

1. Ardatz honen helburua da ikastetxeetan pertsona desberdinekiko esperientzia eta haien arteko errespetu- eta berdintasun-loturen eraikuntza sakontzea eta gatazkak zentzuz konpontzeko elkarrizketarako gaitasuna eta jarrerak garatzea, printzipio demokratikoak eta giza eskubideen errespetua eta bermea oinarri hartzen dituen hezkuntza aplikatuz eta balio eta esperientzia zibikoak landuz.

Esan behar du:

7. artikulua. Elkarrekin bizi

1. Ardatz honen helburua da ikastetxeetan pertsona **desberdinen arteko** esperientzia eta haien arteko errespetu- eta berdintasun-loturen eraikuntza sakontzea eta gatazkak zentzuz konpontzeko elkarrizketarako gaitasuna eta jarrerak garatzea, printzipio demokratikoak eta giza eskubideen errespetua eta bermea oinarri hartzen dituen hezkuntza aplikatuz eta balio eta esperientzia zibikoak landuz.

Zioa: idazketa hobetzea, oinarritzko berdintasun-egoera ez aurreikusteko.



8. ZUZENKETA GEHITZEKOA

7.2 artikuluari “komunarekiko eta” esamoldea gehitzea proposatzen da. Honela idatzita geratuko litzateke:

7. artikulua. Elkarrekin bizi

[...]

2. Elkarbizitzak, funtsezko balio gisa, berekin dakar arlo **komunarekiko eta** publikoarekiko kezka kontuan hartzea, elkargune eta bizi-garapenerako gune komuna den aldetik, bai eta, bereziki, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren politikaren oinarri diren ondasun publikoak zaintzea; baina elkarbizitzak, era berean, berekin dakar natura zaintzeko erantzukizunean heztea, jasangarritasunaren eta elkartasunaren ikuspegitik.

Zioa: guztion ongia behar da.



9. ZUZENKETA, GEHITZEKOA

Bigarren parrafo bat gehitzen zaio 22. artikulua 5. zatiari, eta honela geratzen da idatzita: 22. artikulua.– Itunpeko ikastetxe pribatuak.

1.- Itunpeko ikastetxe pribatuak dira titulartasun pribatua izan arren indarrean dagoen legedian ezarritako itun-araubidearen bidez finantzatzen diren ikastetxeak.

2.- Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren barruan nahitaezko ikasketak ematen dituzten itunpeko ikastetxeak oso-osorik finantzatuko dira, ikasketa horiei dagokienez.

3.- Itunpeko ikastetxeek lege honetan eta beronen erregelamenduzko garapenean zehazten diren baldintzak bete beharko dituzte. Agintzen diren auditoretzen mende egongo dira, bai eta baliabide publikoen erabilera haien xedeari lotua dagoela ziurtatzen duten kontabilitategardentasuneko arauen mende ere.

4.- Titulartasun pribatuko ikastetxe berrien ituntzea ikastetxeen sarea planifikatu eta antolatzeke esparruan indarrean dagoen legediaren barruan egingo da.

5.- Itunpeko ikastetxeak, funts publikoen bitartez finantzatutako ikastetxeak diren aldetik, indarrean dagoen araudi orokorrean, lege honetan eta beronen arauzko garapenean ezarritakoaren arabera erregulatzen dira, baita irakaskuntza-askatasunaren eta ikastetxeen autonomiaren esparruan beren burua antolatzeke emandako arauetan ezarritakoaren arabera ere, betiere aplikagarri zaizkien printzipio eta arau orokorrak urratzen ez badituzte edo haien aurka ez badoaz.

Itunpeko ikastetxe pribatuen finantzaketa publikoa Legean eta haren erregelamenduzko garapenean agertzen diren eskakizunak, printzipioak eta irizpideak betetzearen baldintzapean egongo da; horrela, horiek betetzen dituzten ikastetxeek finantzaketa publikoa jasoko dute eta, ondorioz, Hezkuntzako Euskal Zerbitzu Publikoaren prestazioaren parte izango dira.

6.- Nolanahi ere, itunen araubideari begira lehentasuna izango dute baldintza ekonomiko txarrak dituzten ikasleak hartzen dituzten ikastetxeek, hezkuntza-sistamarako interés pedagogikoa duten esperientziak egiten dituztenek, hurbileko eskolatzea sustatzen dutenek eta kooperatiba-araubidean eratu eta funtzionatzen dutenek. Horien guztien espezifikotasuna kasuan kasuko araudian aitortuko da.

Justifikazioa: Finantziarioak Legean agertzen diren eskakizun, printzipio edo irizpideekin duen lotura argiagotzea.



10. ZUZENKETA, ALDATZEKOA

Aldatu egiten da 26. artikulua 5. paragrafoa.

Hau dioen lekuan:

26. artikulua.– Programazioa eta sarbidea.

1.- Pertsona orok eskubidea du Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikora berdintasunbaldintzetan sartzeko. Halaber, ikastetxea aukeratzeko eskubidea du, programaturako hezkuntza-
eskaintzaren esparruan. Eskola-plazen eskaintza hori eskolaratze-premia errealetara egokituko da, eta gaitzeskaintza eta azpieskaintza saihestuko dira. Beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo bestelakoengatik segregatzearen aurka.

2.- Hezkuntza-administrazioak hezkuntzarako eskubidea baliatzen dela bermatuko du irakaskuntzaren programazio orokorraren bidez, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak egiten duen programazio estrategikoaren esparruan. Nolanahi ere, hezkuntza-komunitateak irakaskuntzaren programazioari buruzko partaidetza-prozesuetan parte hartuko du, lege honetan eta berau garatzen duten erregelamenduzko arau-xedapenetan jasotako organo eta eztabaida-prozeduren bidez.

3.- Hezkuntza-eskumenak dituen sailak zehaztuko du funts publikoekin finantzaturako ikastetxeetako plazen eskaintza, sarbide-eskubidea arautzen duen erregelamenduarautegiarekin bat etorritik, lurralde bakoitzeko beharrak eta aurrekontu-baliabideak kontutan hartuz.

4.- Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailaren programazioaren helburua da eskaintza eskolaratze-premietara egokitzea, betiere lege honetan jasotako printzipioekin bat etorritik. EAEko biztanleriaren joera demografikoak berariaz aurreikusiko dira prospektiba-azterlanen eta -
analisen bidez, eta, aldez aurretik, ikastetxeetan dauden ikasle/plaza ratioaren gaineko inpaktuak identifikatuko dira lurraldez lurralde eta urtez urte.

5.- Ikastetxeen eskola-programazioan, hezkuntza-arloan eskumena duen sailak behar adina plaza publiko daudela bermatzeko moduan programaturako du hezkuntza-
eskaintza hori, batez ere biztanleria berriko eremuetan.

6.- Udalek hezkuntza-arloan eskumena duen sailarekin lankidetzan jardun ahal izango dute matrikulazio-prozesuen esparruan, familientzako informazio-, orientazio- eta matrikulaziobulego espezifikokoak sortzeko espazioak emanez, eta ETELen 17.1 artikuluan aitortutako eskumenak baliatuko dituzte, lege honetan ezarritako baldintzetan.

Hurrengoa esan behar du:

26. artikulua.– Programazioa eta sarbidea.

1.- Pertsona orok eskubidea du Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikora berdintasunbaldintzetan sartzeko. Halaber, ikastetxea aukeratzeko eskubidea du, programaturako hezkuntza-
eskaintzaren esparruan. Eskola-plazen eskaintza hori eskolaratze-premia errealetara egokituko da, eta gaitzeskaintza eta azpieskaintza saihestuko dira. Beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo bestelakoengatik segregatzearen aurka.



2.- Hezkuntza-administrazioak hezkuntzarako eskubidea baliatzen dela bermatuko du irakaskuntzaren programazio orokorraren bidez, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak egiten duen programazio estrategikoaren esparruan. Nolanahi ere, hezkuntza-komunitateak irakaskuntzaren programazioari buruzko partaidetza-prozesuetan parte hartuko du, lege honetan eta berau garatzen duten erregelamenduzko arau-xedapenetan jasotako organo eta eztabaida-prozeduren bidez.

3.- Hezkuntza-eskumenak dituen sailak zehaztuko du funts publikoekin finantzatutako ikastetxeetako plazen eskaintza, sarbide-eskubidea arautzen duen erregelamenduarautegiarekin bat etorritik, lurralde bakoitzeko beharrak eta aurrekontu-baliabideak kontutan hartuz.

4.- Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailaren programazioaren helburua da eskaintza eskolatze-premietara egokitzea, betiere lege honetan jasotako printzipioekin bat etorritik. EAEko biztanleriaren joera demografikoak berariaz aurreikusiko dira prospektiba-azterlanen eta -analisien bidez, eta, aldez aurretik, ikastetxeetan dauden ikasle/plaza ratioaren gaineko inpaktuak identifikatuko dira lurraldez lurralde eta urtez urte.

5.- Ikastetxeen eskola-programazioan, hezkuntza-arloan eskumena duen sailak behar adina plaza publiko daudela bermatzeko moduan programatuko du hezkuntza-eskaintza hori, batez ere biztanleria berriko eremuetan, batez ere biztanle berrien eremuetan, plaza publikoen eskaerari erantzuteko eskaintza nahikoa ziurtatuz.

6.- Udalek hezkuntza-arloan eskumena duen sailarekin lankidetzan jardun ahal izango dute matrikulazio-prozesuen esparruan, familientzako informazio-, orientazio- eta matrikulaziobulego espezifikoak sortzeko espazioak emanez, eta ETELen 17.1 artikuluan aitortutako eskumenak baliatuko dituzte, lege honetan ezarritako baldintzetan.

Justifikazioa: Zuzenketa honek zehatzago jaso nahi du plaza publikoen bermea derrigorrezkoa dela.



11. ZUZENKETA, GEHITZEKOA

Eduki berria gehitzen zaio 32. artikulua 2. paragrafoaren c) letrari, eta honela geratzen da idatzita:

32. artikulua.– Elkarbizitza, hezkidetzeta eta kulturartekotasuna

1.- Elkarbizitzaren balioak demokraziarako hezteko dakar, arlo publikoarekiko errespetuan, sentsibilizazioaren eta ezagutzaren bidez planeta kontserbatzeari buruzko sentiberatasun berezi batez.

2. - Elkarbizitza, hezkidetzeta eta kulturartekotasuna dira, beraz, euskal irakaskuntzaereduaren funtsezko oinarriak. Horretarako, Euskal Hezkuntza Sistemak helburu hauek ditu:

- a) Elkarbizitza positiboa bultzatzeko, ikasleen autonomia sustatzen duten zeharkako kompetentziak garatzea, honako hauen bitartez: jakintza eta haren aplikazioen garapena, autokudeaketa eraginkorra, autoestimua eta hezkuntza emozionalaren sustapena, sormena, talde-lana, erabakiak hartzeko laguntza, bai halaber, komunikazio eta entzute eraginkorrak, enpatia, eta gatazkak sistema alternatiboan bidez kudeatzeko prozedurak, hala nola bitartekaritzaren bidez eta erantzukizunean oinarritutako prozeduren bidez eta, ahal denean, elkarrizketa errestauratiboaren bidez erabiliz, neurri zuzentzaileak aplikatzea eragotzi gabe, hala dagokionean.
- b) Batez ere, kulturarteko hezkuntzaren alde eta askotariko erlijio-sinesmenak dituztenenganako errespetuaren alde egitea, beste batzuen edo norberaren estereotipoetatik urrunduz eta inklusio-gaitasun eraginkorra sustatuz, elkarbizitza positiboaren paradigma gisa. Euskal Hezkuntza Sistema aniztasunera bideratzeak esan nahi du berariazko arreta jarriko zaiola pertsonari eta ikasleek une bakoitzean behar duten guztiari.
- c) Emakumeen eta gizonen berdintasunera eta ekitatera bideratutako hezkuntza bermatzea, baita sexu-orientazioari dagokionez ere, jokabide edo jarrera diskriminatzaileak eragotziz eta pertsona bakoitzak, garapen pertsonalean eta hezkuntza-sistemaren etapetan aurrera egin ahala bere nortasuna eraiki dezan lagunduz, bereziki dimentsio afektibo-sexualari dagokionez, horretarako, berdintasunean oinarritutako hezkuntza afektibo eta sexualaren alde egiten, hazkunde pertsonalarekin eta sexualitatearekiko jarrera positiboa eta arduratsua garatzeko helburuarekin.

3. – Elkarbizitza sustatzea hezkuntza-komunitate osoaren erantzukizuna da, eta zuzenean lotuta dago ikasleek garatu behar dituzten oinarrizko kompetentziekin, batez ere kompetentzia pertsonalak garatzearekin —hala nola autonomia, autokudeaketa eraginkorra, autokontrol emozionala eta erabakiak hartzea—, baita haien gaitasun sozialarekin, komunikazioarekin, enpatiarekin eta gatazken kudeaketa positiboarekin ere.

4. Hezkidetzeta hezkuntza-sistemaren funtsezko ardatza da ikasleen garapen integralerako. Hezkuntza-proiektu bakoitzean garatuko da hezkidetzeta, bere berezitasunei, hedapenari eta egokitzapenari dagokienez.



5. Gaur egun EAEko gizartearen sinesmenak askotarikoak direla kontuan hartuta, funts publikoen bitartez finantzatzen diren EAEko ikastetxeek elkarbizitza bermatuko dute, beren izaera propioari uko egin gabe baina, nolanahi ere, erlijio-sinesmen oro errespetatuz, erlijioadierazpen desberdinei buruzko oinarrizko ezagutza zabalduz, baina doktrinamendua-mota oro debekatuta.

6. Udal hezkuntza-kontseiluen bitartez, eskola gizarte-ehunean txertatuko duten elkarbizitza-ereduak sustatu behar dira ikastetxeetan, eta, aldi berean, hezkuntza-espazio horiek gizartearekin etengabeko elkarreraginean jarri.

7. Inklusioan oinarritutako hezkuntzak ziurtatu behar du Autonomia Erkidegotik kanpoko ikasleak hezkuntza-sisteman erabat txertatzen direla, haien sarbidea erraztuz eta bertan irauten dutela eta ikasten aurrera egiten dutela bermatuz.

Justifikazioa: hezkidetzaren esparruan hezkuntza afektibo-sexualak duen garrantzia aipatzea.



12. ZUZENKETA, ALDATZEKO

34. artikulua. 10. paragrafoaren amaieran beste eduki bat gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

34. artikulua.– Aniztasunari buruzko neurriak.

1.- Aniztasuna da euskal eskola inklusiboaren jardunaren oinarria. Eskola horrek kalitatezko hezkuntza eta aukera-berdintasuna bermatzen ditu, bidezkoa eta ekitatiboa da, eta ikasleguztien eskola-arrakasta lortzeko politika, kultura eta praktika multzo batean gauzatzen da.

2.- Eusko Jaurlaritzak, bere araugintza- eta kudeaketa-politikaren bidez, bermatuko du hezkuntza-sistemak beharrezko baliabideak izango dituela eskura ikasle guztiek ahalik eta aurrerapen akademiko eta pertsonal handiena, bizitzarako kompetentzien garapen handiena eta lege honetan ezarritako helburuak lor ditzaten.

3.- Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak beharrezkoak diren politikak, estrategiak eta gidalerroak zehaztuko ditu ikasleen aniztasunari erantzun inklusiboa emango zaiola segurtatzeko, eta bermatuko du ikastetxeek inklusioari laguntzeko behar diren baliabide tekniko eta pertsonalak dituztela.

4.- Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak sarbide, partaidetza eta ikaskuntzarako oztopoen detekzio eta identifikazio sistematiko goiztiarra bultzatuko du, horretarako estrategiak, programak edo protokoloak garatuz, bai Haur Hezkuntzan, bai Oinarrizko Hezkuntzan. Identifikazio-prozesu horiek, hezkuntza-erantzuna eta prozesuon ebaluazioa osasun- eta gizarte-zerbitzuekin koordinatuta egin daitezela sustatuko da, esku-hartzeen koherentzia eta eraginkortasuna bultzatuko duten jarduerak integratuak lortzea helburu.

5.- Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak hezkuntza berritzatzeko eta ikertzeko proiektuak garatu eta sustatuko ditu, euskal eskolan aniztasunari ematen zaion erantzunaren kalitateari buruz eta izaera inklusiboari buruz.

6.- – Ikasle guztiek izan ditzakete zailtasunak, ingurunearekiko elkarrekintzan sarbidea, partehartzea eta ikaskuntza oztopatzen dizkietenak. Beraz, laguntza eta neurri bereziak behar dituzte hezkuntza-kompetentziak garatzeko. Lege honi dagokionez, ikasteko eta parte hartzeko oztopotzat hartuko dira oinarria desgaitasunean edo beste edozein zaurgarritasun pertsonal, sozioekonomiko, osasuneko, generoko edo funtzionaletan duten guztiak, ikasleen garapenera begira ikaskuntza-helburu egokiak lortzeko neurriak eta laguntzak hartzea eskatzen badute.

7.- Ikastetxeek berariazko hezkuntza-laguntzaren premiak dituzten ikasleen aurrerapena sustatzeko neurriak eta laguntzak behar bezala antolatuko dituzte.

8.- Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak irakasleen eta hezkuntza-langileen prestakuntza sustatuko du, berariazko hezkuntza-laguntzaren premia duten ikasleei hezkuntza-erantzun inklusiboa eta kalitatezkoa emateko.

9.- – Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak erregelamendu bidez zehaztuko ditu ikasleen aniztasunari erantzun dioten politikak eta estrategiak, inklusioaren eta ekitatearen printzipioetan oinarritutako hezkuntza-sistemaren esparruan.

10.- HKI (Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea) modu publikoan arautuko da, haren osagaiak eta aplikazioak barne, ekitatearen arloko hezkuntza-politikako erabakiak hartzeko. Araudi horren barruan sartuko dira oso konplexutasun handiko eta oso konplexutasun txikiko



ikastetxeen egoera zuzentzeko beharrezkoak diren berrorka-mekanismoak eta trantsizio-aldiak ezartzea, HKIren arabera neurtuta. Indize hori kontuan hartuko da dagozkion baliabide publikoak esleitzeko.

Justifikazioa: Idazketa hobetzen duen zuzenketa.



13. ZUZENKETA, ALDATZEKOA

Aldatu egiten da 36. artikulua 9. paragrafoa, kentzeko “ingurune behartsuetako” eta haren ordean “hezkuntza-komplexutasun handiko” jartzeko, bai eta “hezkuntza- eta curriculum proiektuak” kentzeko “hezkuntza-proiektuak eta curriculum-zehaztapenak” esaldiaren ordean. Hona hemen proposatzen den idazkera:

36. artikulua.– Plangintza estrategikoa eta programa-kontratua.

1.- Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak hezkuntza-politiken eta –kudeaketaren esparruaren gaineko plan estrategiko bat egingo du lau urtean behin, Euskal Hezkuntza Sistemari begira, zeinak, bere barnean plan espezifiko bat izango duen euskal eskola publikoaren beharrei eta erronkei erantzuteko.

2.- Euskal Hezkuntza Sistemarako plan estrategikoak aldi horretarako misioa, ikuspegia, balioak eta jarduera-ildo nagusiak jasoko ditu, hezkuntza-eraldaketako politikari eta hura aplikatzean aurre egin beharreko erronkei dagokienez. Gainera, ekitatea eta hezkuntzabikaintasuna areagotzera bideratutako lan-ildo nagusiak definituko ditu plan horrek.

3.- Plan estrategikotik abiatuta, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak programakontratuak onartu ahal izango ditu, plan estrategikoan jasotako jarraibideen arabera ikastetxeekin hitzartuta.

4.- Programa-kontratuak, halakorik badago, plan estrategikoaren ildo estrategikoak ikastetxeetan nola aplikatzen diren zehaztuko du.

5.- Programa-kontratua tresna juridiko bat da, ekonomiko-finantzarioa eta plangintza estrategiko eta operatibokoa, gehienez ere lau urteko iraupena izango duena, zeinaren arabera, plan estrategikoan ezarritako ildoekin bat etorritik, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak definitu ahal izango baititu, ikastetxe batekin edo ikastetxe-talde batekin itunduta, programan sartzeko baldintzak, jomugak eta helburuak, baita, hala badagokio, ezarritako aldirako esleitutako aurrekontua eta baliabide teknologikoak eta giza baliabideak ere, eta era berean finkatuz, hala dagokionean, ezarritako epean ikastetxearen edo ikastetxeen emaitzen ebaluazioa bideragarri egin dezaketen kudeaketa-adierazleak. Programa-kontratua, halaber, eredu gisa eratu ahal izango da ikastetxe multzo batentzat, eta kasu horretan banakako eranskinak jaso ahal izango ditu, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.

6.- Programa-kontratuak eta, halakorik badago, haren eranskinen informazio hau jaso behar dute:

a) Kontratua sinatzen duten alderdiak.

b) Bultzatu beharreko misioa eta ikuspegia.

c) Plan estrategikoan eta programa-kontratuan eragina duten balioak.

d) Ezartzen den aldirako aurrekontuaren jomugak eta helburuak, eta betetze-kronograma aurrez zehaztutako denbora-eremuen arabera. Xede eta helburu horiek banakatu ahal izango dira, aurreko apartatuan zehaztutakoaren arabera.

e) Aldi osorako esleitutako aurrekontua eta aurrekontu-ekitaldien araberrako mailakatzeari, haren betetzea proiektatuz lurralde historikoa eta udalerriak, emandako ikasketen arabera eta, era berean, ikastetxeen arabera.



- f) Eranskinetan aipatzen diren eragile instituzionalei eta kudeaketa-eragileei, eta, hala badagokio, ikastetxeei, esleitutako ondarezko baliabideak, baliabide teknologikoak eta giza baliabideak.
 - g) Kudeaketa-adierazleak zehaztea; adierazle horiek kuantitatiboak eta, hala badagokio, kualitatiboak izan behar dute.
 - h) Ebaluazio-sistema eta -metodologia, eta hura gauzatuko duten organo eskudunak.
 - i) Kontuak emateko eredia.
 - j) Eragile instituzional eta kudeaketa-eragileentzako eta ikastetxeentzako estimulu/zigorren pizgarri-sistema, urtez urteko ekitaldietan eta lau urteko aldi lortutako emaitzen arabera, urteko ekitaldietan eta gehienez ere lau urteko aldi, hasieran ezarritako helburuetara egokitzen ez den ebaluazio batek izan ditzakeen ondorioak kontuan hartuta, eta artikulua honen 8. apartatuan jasotako aparteko doikuntzak alde batera utzi gabe.
 - k) Eragile instituzional eta kudeaketa-eragileen eta ikastetxeen gardentasun- eta partaidetza-eredua, plan estrategikoan jasotako printzipioen arabera.
 - l) Hezkuntza-sistemaren azpiegitura teknologikoak eta digitalizazio- eta automatizazio-azpiegiturak ezartzeko eta egokitzeko programa estrategikoa, lurralde-eremuen eta ikastetxeen arabera banakaturik, aurreikusitako programa horrek irakaskuntzan ari diren pertsonen profil profesionaletan eta laguntzako eta administrazio eta zerbitzuetako langileengan izan ditzakeen eragin azterketa.
 - m) Erregelamendu bidez zehazten diren gainerakoak.
- 7.- Programa-kontratuaren indarraldia hasiko da aurrekoa indarririk gabe geratu baino sei hilabete lehenago, edo, lehenengoa bada, hurrengo aurrekontu-ekitaldian kontratu hori aplikatu aurreko maiatzean.
- 7.bis- Itunpeko ikastetxeen kasuan, ikastetxe guztien berdintasuna bermatuko da, eta, hala badagokio, izenpetu aurretik deialdi publiko bat egingo da. Deialdi horretan, onuradun izango diren eta programa-kontratua sinatuko duten ikastetxeek bete behar dituzten baldintzak, indarraldia eta kontuak emateko araubidea adieraziko dira.
- 8.- Programa-kontratuaren indarraldia denbora-tarte jakin baterako zehazten bada ere, jomugak eta helburuak aldatu ahal izango dira baldin eta ezohiko edo kanpoko egoerak sortzen badira eta, horren ondorioz, gastuari eusteko politika jakin batzuk aplikatu eta aurrekontu-doikuntzak egin behar badira, baita ezinbestez eta berehala bete beharreko premia bereziak edo aparteko edo ohiz kanpoko egoerak agertzen badira ere.
- 9.- Hezkuntza-administrazioak berriazko laguntza eta babes sustatuko ditu, lehentasunez, autonomia garatzeko zailtasun handienak dituzten hezkuntza-komplexutasun handiko ikastetxeek programa-kontratuak egin eta gara ditzaten, haien hezkuntza-proiektuak eta curriculum-zehaztapenak indartzeko eta ikasleei eta hezkuntza komunitateari erantzun egokiagoak emateko.
- 10.- Hezkuntza alorreko eskumena duen sailak erregelamendu bidez zehaztuko ditu programa-kontratuak eta haien eranskinek bete beharreko edukiak eta baldintzak, lege honetan adierazitako baldintzen arabera.

Justifikazioa: idazketa berriak hobeto jasotzen du neurrien xede diren ikastetxeen izena.



14. ZUZENKETA, GEHITZEKOA

45. artikuluari hirugarren parrafo bat gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

45. artikulua.– Gobernu-organoak eta irakaskuntza-koordinazioko organoak.

1. Itunpeko ikastetxe pribatuek gobernu-organo hauek izan behar dituzte, gutxienez:

- a) Zuzendaria.
- b) Irakasleen klaustroa.
- c) Eskola-kontseilua.

2. Ikastetxearen antolakuntza- eta funtzionamendu-arauek zehaztu behar dituzte irakaskuntzako koordinazio- eta tutoretza-organoak.

3. Itunpeko ikastetxe pribatuen gobernu-organoen izena zentro bakoitzari dagokion tipologia edo sozietate-forma bakoitzaren araudiari egokituko zaio, organoen osaera errespetatuz, eta, bereziki, kooperatiben kasuan, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legean jasotako organoei.

Justifikazioa: hobekuntza teknikoa. Kooperatiben idiosinkrasia sartzeari itunpeko zentro pribatuen gobernu-organoen izenean.



15. ZUZENKETA, ALDATZEKO

57. artikulua 1. paragrafoaren o) idatz-zatia aldatzeko zuzenketa, ezabatu egin nahi da “berariazko erregelamendu-garapena” eta gehitu “arauketa espezifikoak”. Honela idatzita geratuko litzateke:

57. artikulua.– Euskadiko Eskola Kontseiluaren eginkizunak.

1.- Euskadiko Eskola Kontseiluari nahitaez egin beharko zaio kontsulta gai hauei buruz:

- a) Irakaskuntzaren programazio orokorra.
- b) Lege-aurreproiektuak eta erregelamendu-mailako xedapen orokorren proiektuak, baldin eta zuzenean eragiten badiote hezkuntzarako eskubidea gauzatzeari, irakaskuntza-askatasunari eta Konstituzioaren 27. artikulua botere publikoei ezartzen dizkien betebeharrak betetzeari.
- c) Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak bultzatutako plan estrategiko eta operatiboak edo irakaskuntzaren programazio orokorrerako garrantzi berezia duten bestelako dokumentuak. Kontsulta egingo zaio, bereziki, plan estrategikoei buruz eta aldi bererako esparruko programa-kontratuaren oinarritzko ildoei buruz.
- d) Eskola-plazak sortu, ezabatu eta aldatzeari buruzko oinarritzko irizpideak.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko oinarritzko edo esparruko curriculum-diseinuak erregulatzen dituzten arau orokorrak.
- f) Programak eta orientazio pedagogikoak eguneratzeko, berritzeko eta esperimentatzeko plan orokorrak.
- g) Helduen hezkuntzaren eta bizialdi osoko ikaskuntzaren politiken oinarritzko helburuak.
- h) Langileei buruzko politikaren oinarritzko irizpideak, giza baliabideen, prestakuntzaren, etengabeko ikaskuntzaren eta programa horien ebaluazioaren arloetako premiei dagokienez.
- i) Aukera-berdintasunaren arloko jarduketak eta konpentsazio-ekintzak eta hezkuntza-integratzioko ekintzak inspiratzen dituzten oinarritzko irizpideak.
- j) Irakasleen eta irakasle ez diren laguntzako edo administrazio-zerbitzuetako langileen eskakizun profesional berriak definitzea, autoikaskuntzaren, digitalizazioaren eta iraultza teknologikoaren ondoriozko erronka metodologikoei aurre egiteko, baita zenbait ikasgai beste hizkuntza batzuetan irakasteko ere.
- k) Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak proposatuta, ikastetxeetako zuzendaritza-eginkizunaren eredia eta zuzendaritzako kideen eta haien lantaldeen kompetentzia-eskakizunak zehaztea.
- l) Sinergiak sustatzea, kontseilu-modalitate desberdinetan eraturiko eragile instituzionalen artean.
- m) Ikastetxeko ikasleen parte hartzea sustatzea, garapen pertsonala eta soziala bultzatuz, bai eta haiengan kidesun-sentipena errotuz ere.
- n) Elkarriketa eta informazio-kanalak garatzea ikastetxeetako zuzendaritzekin, hezkuntza-zerbitzuekin eta unibertsitateekin.
- o) Arlo honi buruzko arauketa espezifikoan aurreikusten den beste edozein gai, zeinak aurreko eskumenak zehaztu ahal izango baititu.

2.- Euskadiko Eskola Kontseiluak bere jardueri buruzko memoria bat eta Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntzaren egoerari buruzko txosten bat egingo ditu bi urtean behin, eta



Gardentasunaren Atarian argitaratuko da. Era berean, Eusko Jaurlaritzan hezkuntzaren arloko eskumena duen saileko buruaren aurrean aurkeztuko da, eta, hala badagokio, haren erregelamenduak xedatutakoaren arabera, Eusko Legebiltzarrean.

Justifikazioa: Proposatzen den idazketak behar bezala jasotzen du Eskola Kontseiluaren funtzioak gehitzea eskatzen duen erregulazioa.



16. ZUZENKETA, KENTZEKOA

Kendu egiten dira 77.1 artikuluko a) idatz-zatitik f) idatz-zatira bitartekoak. Honela geratzen da idatzita:

77. artikulua.– Ebaluazioa Euskal Hezkuntza Sistematan.

1.- Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak eta ikastetxeek hezkuntza-politika publikoak eta horien kudeaketa-emaitzak ebaluatzeko sistemen arabera gauzatuko dituzte beren eskumenak lege honetan eta indarrean dagoen legedian ezarritakoaren esparruan, eta, besteak beste, eremu hauetan proiektatu ahal izango dira:

2.- Euskal Hezkuntza Sistemak ebaluazio integrala indartuko du, eta tresna hori eragileen eta ikastetxeen prozedura eta jarduera guztiei aplikatuko die, adostutako adierazle neurgarrien eta gure inguruko herrialdeetakoekin homologagarriak direnen esparruan.

3.- Ebaluazio-prozesuen funtsezko helburua da hezkuntza-sistemaren efizientzian eta etengabeko hobekuntzan laguntzea, baita ekitate eta bikaintasunean ere, kasu bakoitzean identifikatzen diren ahulguneak eta aurrerapen-bideak identifikatuz, eta hobekuntzaproposamen eta -gomendioen formulazioa zehaztuz. Proposamen eta gomendio horiek datu objektiboetan oinarrituta egongo dira, eta ereduaren efikazia eta efizientzia garatzearen eta areagotzearen alde egingo dute, hezkuntza-komunitatearen eta, bereziki, ikasleen mesedetan, haiek baitira Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren hartzaille nagusiak.

4.- Ebaluazio-prozesuek, halaber, informazio eguneratua eta etengabea eman behar dute Euskal Hezkuntza Sistemak helburu orokorrak zein neurritan lortu dituen jakiteko eta, zehazki, ikastetxeen betetze-mailari buruz, ikastetxeak hezkuntzaren arloko eskumena duen sailarekin izenpetutako plan estrategikotik eta, halakorik badago, programa-kontratutik abiatuta.

5.- Era berean, kudeaketaren gardentasuna areagotzera eta ikastetxearen emaitzak zehaztera bideratuko dira ebaluazio-prozesuak, bereziki kontuak emateari begira, bai zuzendaritzako langileen eta zuzendaritza-taldeko kideen aldetik, baita beren eginkizunak betetzen ari diren langile guztien aldetik ere.

6.- Ebaluazioaren helburua izango da, halaber, hezkuntza-sistemaren egungo arazoak identifikatzea, eta azterketa eta analisi prospektiboak sustatuko dira hezkuntza administrazioaren etorkizuneko beharrei antzemateko eta hezkuntza-sistemaren etorkizuneko erronkei aurre egiteko beharrezkoak diren aldaketei edo eraldaketei ekiteko neurri egokiak abian jartzeko, bereziki disruptibotasun handiko erronkei eta ziurgabetasun edo aldakortasun handiko egoeretatik eratorritakoei aurre egiteko.

Justifikazioa: hobekuntza teknikoa. Ebaluazio-eremuen deskribapena 79. artikuluan jasota dago. Erreduantea da hasierako artikulua honetan ebaluazio-eremuak aipatzea.



17. ZUZENKETA, GEHITZEKO

79. artikulua.– Hezkuntza-ebaluazioko prozesuen eremuak.

1. Euskal Hezkuntza Sistemako eremu guztietara hedatuko da ebaluazioa, eta, bereziki, ikastetxe guztietara, edozein dela ere haien izaera edo titulartasuna.

2. -Funts publikoen bitartez finantzaturako ikastetxe, jarduera eta zerbitzuek lege honetan ezartzen diren ebaluazio-modalitate guztiak garatu beharko dituzte, edo lege honen erregelamendu bidezko garapenean zehazten edo aurreikusten direnak.

3. Erregelamendu bidez ezartzen denaren arabera, ebaluazio integraleko ebaluazio-sistema bat arautuko da, prestakuntzara eta berrikuntzara bideratua, ebaluazioaren ikuspegi integrala garatuko duena, kontuan hartuta ebaluazio hori prozesu konplexua eta faktore anitzekoa dela, barne hartzen dituena ikasleak, irakasleak, curriculuma, zuzendaritzak, ikastetxea, familiak, hezkuntza-komunitatea eta -sistema, eta autoebaluazioaren eta kanpoebaluazioen arteko osagarritasuna bilatu behar duela.

4. – Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak hezkuntza-sistema osoaren ebaluazio orokorrak bultzatuko ditu aldian-aldian; ez dira eremu horretan sartuko ez unibertsitatesistema, ezta araubide bereziko ikasketak ere, kasu horietan guztietan ebaluazio bereziak egingo baitira.

5. – Ikasleen emaitzei buruzko ebaluazioetan kontuan hartu beharko dira kasuan kasuko testuinguruak —bereziki gizarte- eta hezkuntza-zaurgarritasuneko eremuei eta familien eta ikasleen egoera sozioekonomiko eta kulturei dagozkienak—, baita kasu bakoitzean zehazten diren erreferentziazko beste aldagai batzuk ere. Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak kontuan hartuko ditu inguruabar horiek ebaluazio-planak betearazterakoan.

6. – Ebaluazioa batez ere eremu hauetan gauzatuko da, besteak beste:

- a) Ikasleek curriculumaren arlo guztietan izandako aurrerapenak kontuan hartzen dituen hezkuntza-errendimenduaren ebaluazioa, oinarrizko kompetentzien eskuratze-maila barne, hezkuntza-sistemako etapa eta ikasturte guztietan egiaztatua. Gainera, lege honetan aurreikusitako helburuen eta formen arabera eskuratutako komunikazio- eta hizkuntzako kompetentziak ere ebaluatuko dira.
- b) Irakaskuntza-eginkizunaren ebaluazioa, aukera emango duena eginkizun hori hobetzeko arloak identifikatzeko eta hezkuntza-etapa bakoitzaren eskakizunetara egokitzeko prozesurako behar diren neurriak programatzeko, batez ere prestakuntzari eta lanbide-garapenari dagokienez.
- c) Zuzendaritza-eginkizunaren eta ikuskapen-eginkizunaren ebaluazioa; haien zereginen betetze-mailari eta kudeaketa-prozesuen emaitzei buruzko ebaluazioa ere egingo da.
- d) Ikastetxeen ebaluazioa, hezkuntza-ikuspegi pedagogikotik eta ikastetxearen funtzionamendu, antolamendu- eta kudeaketa-alderdiei erreparatuz, batez ere giza



baliabideen, administrazio-prozesuen eta kudeaketa ekonomikofinantzarioaren eta teknologikoaren kudeaketaren alorrean.

- e) Plan estrategikoak eta, halakorik badago, ikastetxeekin egindako programa-kontratuak.
- f) Hezkuntza, zentzurik zabalenean hartuta, aplikatzeari dagokion beste edozein eremu.

Justifikazioa: Idazketa hobetzea. 77. artikuluko e) eta f) idatz-zatiak 79. artikuluan jaso dira.



18. ZUZENKETA, GEHITZEKOA

ISEI-IVEIren funtzio berri bat jasotzen da. Honela geratzen da idatzita:

83. artikulua.- Hezkuntzaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Institutuaren eginkizunak.

Lege honetan ezarritako xede, eremu eta printzipioen arabera, hauek dira Hezkuntzaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Institutuaren eginkizunak:

a) Euskal Hezkuntza Sistema ebaluatzeko agintzen zaizkion proiektu guztiak diseinatzea eta garatzea, bereziki ebaluazio-diagnostikoak, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak egokitzen dituen programak eta Estatuko eta nazioarteko ebaluazioak, haiek erregulatzen dituzten araudiei jarraituz.

b) Hezkuntza-adierazleen EAEko sistema diseinatzea eta etengabe eguneratuta edukitzea, bai eta adierazleak garatzeko eginkizuna duten erakunde eta entitateekin lankidetzan aritzea ere.

c) Ekitatearen eta inklusioaren eremuan, lurralde bakoitzaren egoerari buruzko datuak biltzea, emaitzei, ekitateari, bereizketari, kontzentrazioari eta eremu mailako baliabideei dagokienez, bereizketa eta desberdintasunak gainditzeko politikak garatzeko.

d) Euskal Hezkuntza Sistema hobetzen lagundu dezaketen hezkuntza-ikerketa eta -esperientzia guztiak ezagutzea, aztertzea eta zabaltzea, Euskal Hezkuntza Sistemarako beharrezkotzat jotzen diren ikerketa-proiektuak diseinatzuz, sustatuz eta, hala balegokio, garatuz, bereziki Euskal Hezkuntza Sistemaren alderdi estrategikoei dagokienez.

e) Hezkuntza-prospektibak prestatzea, hezkuntzaren alorreko eskumenak dituen sailari erabakiak hartzen laguntzeko, etorkizuneko beharrezanaren arabera erantzuna emate aldera, baita Hezkuntza Sistemaren beraren helburuetara hobekien egokitzen diren hezkuntza-joerak eta estrategiak aurkitzeko ere.

f) Euskadiko irakaskuntzaren egoerari buruzko azterketen eta diagnostikoen berri jendaurrean ematea, gardentasun-printzipioaren arabera.

Justifikazioa: bereizketaren aurkako politika berriarekin bat etorritik, ISEI-IVEIren Urteko Planaren barruan ekitatea eta inklusioa behatzeko lan-ildo bat zehaztea proposatzen da, emaitzei, ekitateari, bereizketari, kontzentrazioari eta baliabideei dagokienez lurralde bakoitzaren egoerari buruzko datuak bilduko dituen. Horretarako, funtzio berri bat gehitzea proposatzen da. Hezkuntza-akordioak ISEI-IVEIri ere esleitzen dion funtzioa da.



19. ZUZENKETA, GEHITZEKOA

83. artikuluari 2. paragrafoa gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

83. artikulua.- Hezkuntzaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Institutuaren eginkizunak.

1.- Lege honetan ezarritako xede, eremu eta printzipioen arabera, hauek dira Hezkuntzaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Institutuaren eginkizunak:

- a) Euskal Hezkuntza Sistema ebaluatzeko agintzen zaizkion proiektu guztiak diseinatzea eta garatzea, bereziki ebaluazio-diagnostikoak, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak egokitzen dituen programak eta Estatuko eta nazioarteko ebaluazioak, haiek erregulatu dituzten araudiei jarraituz.
- b) Hezkuntza-adierazleen EAEko sistema diseinatzea eta etengabe eguneratuta edukitzea, bai eta adierazleak garatzeko eginkizuna duten erakunde eta entitateekin lankidetzan aritzea ere.
- c) Euskal Hezkuntza Sistema hobetzen lagundu dezaketen hezkuntza-ikerketa eta -esperientzia guztiak ezagutzea, aztertzea eta zabaltzea, Euskal Hezkuntza Sistemarako beharrezkotzat jotzen diren ikerketa-proiektuak diseinatu, sustatu eta, hala balegokio, garatu, bereziki Euskal Hezkuntza Sistemaren alderdi estrategikoei dagokienez.
- d) Hezkuntza-prospektibak prestatzea, hezkuntzaren alorreko eskumenak dituen sailari erabakiak hartzen laguntzeko, etorkizuneko beharrezkoen arabera erantzuna emate aldera, baita Hezkuntza Sistemaren beraren helburuetara hobekien egokitzen diren hezkuntza-joeak eta estrategiak aurkitzeko ere.
- e) Euskadiko irakaskuntzaren egoerari buruzko azterketen eta diagnostikoen berri jendaurrean ematea, gardentasun-printzipioaren arabera.

2.- Kanpo-ebaluazioen emaitzak ezingo dira erabili ikasleen banakako balorazioak egiteko, ezta ikastetxeen balorazioa egiteko ere, haien ezaugarriak eta testuingurua kontuan hartu gabe, batez ere familien eta ikasleen egoera sozioekonomikoan eta kulturean. Era berean, ebaluazioaren emaitzak eta datuak ezin izango dira erabili ikastetxeen sailkapenak edo rankingak ezartzeko.

Justifikazioa: Testuaren idazketa hobetzea, ebaluazio horiek eragin ditzaketen ondorio kaltegarriak saihesteko, ELGAREN PISA ebaluazioak adierazten duen bezala, ebaluazio horiek erabiltzeak desberdintasuna, segmentazioa eta ekitaterik eza indartzea ekar baitezake.



20. ZUZENKETA, ALDATZEKOA

Aldatu egiten da 86. artikulua bigarren paragrafoa. Artikulua honela geratzen da idatzita:

86. artikulua.– Euskal Hezkuntza Sistemaren ikuskaritza.

1. – Euskal Hezkuntza Sistemaren ikuskaritza hezkuntzaren arloko eskumena duen sailaren bitartez egingo dute zeregin horretarako gaituta dauden eta Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoko funtzionario direnek, lege honek eta beronen erregelamenduaren bidezko garapenak ezartzen dituzten baldintzetan.

2. Hezkuntza-sistemaren ikuskaritzak ikuskaritzako, ebaluazioko eta aholkularitzako oinarritzko eginkizunak beteko ditu. Halaber, bizikidetza errazteko, gatazkak modu eraikitzailean konpontzeko prozesuan, bitartekaritzako oinarritzko funtzioa ere eskainiko du. Eginkizunen artean ditu, era berean, hezkuntza-proiektuak garatzean ikastetxeen lankide izatea eta haiei laguntzea, autoebaluazio-prozesuak bultzatzea, kanpo-ebaluazioko prozesuetan parte hartzea eta hezkuntza-erantzuna hobetzerantz bideratutako hobekuntza proposamenak egitea, lege honetan eta beroni buruzko erregelamendu-garapenean zehaztutakoak ahaztu gabe.

3. Hezkuntza-ikuskaritzaren jarduera unibertsitateaz kanpoko Euskal Hezkuntza Sistema osoan proiektatzen da, eta helburu nagusi du Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren prestazioen kalitatea hobetzea, baita araudia eta hezkuntza-komunitate osoaren eskubideak eta betebeharrak betetzen direla bermatzea ere.

Justifikazioa. Araudia betetzen dela bermatzeaz eta eskubideak eta betebeharrak bermatzeaz gain, hezkuntza-ikuskaritzaren eginkizunen artean dago ikastetxeetan bizikidetza positiboa sustatzea. Ideia hori funtzioetan jasotzea proposatzen da, bigarren paragrafoan proposatutako aldaketarekin.



21. ZUZENKETA, ALDATZEKOA

Aldatu egiten da “curriculum proiektua”, eta “curriculumaren zehaztapenak” jartzen da 95. artikuluan, eta honela geratzen da idatzita:

95. artikulua.– Kudeaketa-autonomiako tresnak ikastetxeetan.

1. Ikastetxeen autonomia, funtsean, tresna hauen bidez babesten da:

- a. Hezkuntza-proiektua. Besteak beste, curriculumaren zehaztapenak jasoko ditu, eta hezkuntza-proiektua proiektu horretan sartuko da.
- b. Kudeaketa-proiektua.
- c. Ikastetxearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudia.

2. Halaber, ikastetxe bakoitzak kudeaketa-plan bat onartuko du urtero, programakontratuarekin bat datorrena, halakorik badago. Plan horretan, adierazleak ezarriko dira, eta denbora-tarte horretan egin den kudeaketaren emaitza ebaluatuko da, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak egindako plan estrategikoaren arabera. Programa-kontratua, halakorik badago, jarraibide horietara egokitu beharko da hitzartutako aldietan.



22. ZUZENKETA, GEHITZEKO

96.2 artikuluan ideia berria gehitu da, eraldaketa digitalak ikastetxeko hezkuntza-proiektuan duen garrantzia azpimarratzeko.

96. artikulua.– Hezkuntza-proiektua.

1. Ikastetxeek hezkuntza-proiektu bat izan beharko dute, eta proiektuak berariaz errespetatuko ditu lege honetan ezarritako printzipio, balio eta arauak eta, zehazki, ekitatea eta aukeraberdintasuna, kohesioa eta diskriminaziorik eza, baita bikaintasuna ere.

2. Hezkuntza-proiektuak, halaber, jarduteko lehentasunak jasoko ditu; hezkuntza administrazioak ezarritako curriculumak zehaztuko ditu; herritartasun aktiboa, garapen jasangarrian eta klima-aldaketaren aurkako borrokan oinarritutako hezkuntza, eta emakume eta gizonen berdintasunean oinarritutako hezkuntza gauzatzera bideratutako ikaskuntza kompetentziala bultzatu eta garatuko du, arreta berezia jarriz haurren aurkako indarkeriaren, jazarpenaren eta ziberjazarpenaren prebentzioan eta bakearen eta giza eskubideen kulturean. Era berean, teknologiaren integrazio pedagogikoak eta eraldaketa digitalak dakartzaten aldaketak jasotzen dituen hezkuntza jasoko da.

3. Hezkuntza-proiektuak, ikastetxearen autonomia babestu eta eraginkor bilakatzen duten gainerako tresnekin batera, ikastetxearen identitatea jasotzen du; faktore bereizgarri eta ikastetxearen idiosinkrasia propioaren adierazpide den aldetik, haren helburuak adierazten ditu, eta xedea du ikasleek kasu bakoitzean eskatzen diren oinarritzko kompetentziak lortzea eta ikastetxe bakoitzean eskaintzen den hezkuntza eta ikaskuntza ahalik eta gehien aprobetxatzea.

4. – Hezkuntza-proiektua erregelamendu-garapenean ezarritakoaren arabera idatzi beharko da, eta osagai hauek izan beharko ditu, gutxienez:

a) Ikastetxeko zuzendaritzak, eskola-komunitateko sektoreekin adostasunean, bere gain hartzen duen hezkuntza-aukera, zeinak aldi berean identifikatuta izango baititu ikastetxeko jardueren bitartez erdietsi nahi diren misioa, ikuspegia, balioak eta oinarritzko helburuak.

b) Kohesioaren, aniztasunaren, elkarbizitzaren, balioetan oinarritutako hezkuntzaintegrazioaren eta bikaintasunaren eta ekitatearen sustapenaren printzipioak, proiektu integratzaile gisa.

c) Ikasleek garatuko dituzten kompetentzia digital eta teknologikoak, hezkuntza-sistemaren adin-tartean eta zikloen arabera, iraultza teknologikoaren erronkei aurre egiteko behar bezala prestatze aldera.

5. – Funts publikoen bitartez finantzaturako ikastetxeen hezkuntza-proiektua hezkuntzacomunitate osoaren eskura egongo da, gardentasun-printzipioaren arabera. Ikastetxearen webgunean argitaratuko da.



6. Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak hezkuntza-proiektua egiteko behar den laguntza emango die funts publikoen bitartez finantzatutako ikastetxeei, eta sustatuko du, era berean, ikasle-talde berari segidako etapak ematen dizkioten ikastetxeen hezkuntzaproiektuak koordinatzea eta elkar osatzea.

7. Ikastetxe publikoen zuzendaritza-proiektuak hezkuntza-proiektuarekin guztiz bat etorri beharko du; nolana ere, proiektu horietan egokitzapenak proposatu ahal izango dira, hezkuntza-, antolaketa- edo kudeaketa-berrikuntzako praktika puntualak sartzeko, baita parte hartzearen eremuan ere, eta halaber zuzendaritza-proiektuak ingurune soziokomunitario eta instituzionalarekin dituen harremanen alorrean.

8. Funts publikoen bitartez finantzatutako ikastetxeen hezkuntza-proiektuak hezkuntzako komunitateko sektoreen arteko lankidetzara eta ikastetxearen eta gizarte ingurunearen arteko harremana bultzatzen lagunduko du, bereziki tokiko eremuan —udal hezkuntzako kontseiluen bitartez, hala badagokio, partaidetza organoak diren aldetik—, lege honetan jasotako komunitate-proiektuak artikulatuz eta erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.

Justifikazioa: garrantzitsua da hezkuntza-proiektuan jasotzea tresna teknologikoen integrazio pedagogikoaren eta hezkuntza-komunitatearen gaikuntza digitalaren garrantzia.



23. ZUZENKETA, ALDATZEKO

Aldatu egiten da 97. artikularen 2. paragrafoaren idazketa, “hezkuntza-kalitatearen zigilu baten bidez, besteak beste. Kalitate-zigilu hori erregelamendu bidez emango da” esaldia ezabatuz.

Beraz, testuak hau esan behar du:

97. artikulua.– Ikastetxeen autonomia eta kalitatea.

1. Ikastetxeen kalitatea bi zutabetan oinarritzen da: autonomian, haren proiektio guztietan, eta zuzendaritza-eginkizunaren garapenean, kudeaketa profesionalizatzeko irizpideen arabera.

2.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ikastetxeen kalitatea bultzatzeko beharrezkoak diren programak eta ekintzak sustatuko ditu erregelamendu bidez zehaztutako baldintzetan, eta, besteak beste, honako eremu hauetara zuzendu ahal izango da: hizkuntzaproiektuak, hezkuntza-berrikuntzako proiektuak, ikastetxeen kudeaketa eraginkor eta berritzailea, eskola-elkarbizitzako eta inklusioko ereduak edo digitalizazio-proiektuak.

3. – Hezkuntza-kalitateko ekintzak berariazko planetan sartuko dira. Ikastetxeak edo, hala badagokio, hezkuntza-ikuskaritzak edo hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak ebaluatuko ditu plan horiek, eta haiei buruz kontuak eman.

Justifikazioa: Lege-testua hobetzea



24. ZUZENKETA, ALDATZEKO

Aldatu egiten da 98.1 artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

98. artikulua.– Autonomia pedagogikoa.

1. Ikastetxeek autonomia pedagogikoa dute, ezarritako curriculum-esparrutik abiatuta, eta horrek aukera emango die helburuak, oinarrizko konpetentziak, edukiak, metodologiak eta ebaluazio-irizpideak zehazteko, curriculumaren zehaztapenetan definitzen direnak.
2. Ikastetxeek ikasleen tutoretzen ezaugarri espezifikoak zehaztuko dituzte, bai eta hezkuntza-proiektuan, programa-kontratuetan —halakorik badago— edo helburuak edo erantzukizunak onartzeko egiten den beste edozein dokumentutan beren gain hartzen dituzten hezkuntza-proiektu eta -konpromisoen ezaugarriak ere.
3. Ikastetxeek familien, legezko tutoreen eta ikastetxeen arteko hezkuntza-konpromisoak sustatuko dituzte. Konpromiso horietan, ikasleen errendimendu akademikoa hobetzeko ekintzak, programak edo jarduerak garatzeko konpromisoa hartuko dute familiek, irakasleek eta ikasleek.
4. Funts publikoen bitartez finantzaturako ikastetxeek eskaintzen dituzten aukera pedagogikoak ikasleen premiei erantzutera bideratu behar dira, oinarrizko konpetentziak eta bakoitzaren ahalmenen arabera hezkuntza-aprobetxamendurik handiena eta konpetentzia digitalen garapen espezifikoa lortzeko, baita pentsamendu kritikoa eta etorkizuneko gizartean erraz txertatzeko trebetasun bigunak eskuratzeko ere. Hezkuntzaproiektua etengabe egokituko da, gizarte-eraldaketei eta testuinguru-aldaketei aurre egiteko.
5. Funts publikoen bitartez finantzaturako ikastetxeetan, ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzari dagokio autonomia pedagogikoa bultzatzea eta horren buru izatea. Hala ere, funts publikoen bitartez finantzaturako ikastetxe pribatuetan, autonomia pedagogikoaren sustapena ikastetxe horretako pertsona edo erakunde titularrarekin partekatuko da, eta ikastetxeko zuzendaritzari egokituko zaio lidergo eksklusiboa.

Justifikazioa: curriculumaren zehaztapen terminoa erabiltzen da curriculum dekretu berrietan.



25. ZUZENKETA, KENTZEKOA

Ezabatu egiten da laugarren xedapen gehigarria, eta, beraz, baita Lan Baldintzei buruzko Aholku Batzordearen eraketa ere.

Testu hau ezabatu behar da:

Laugarren xedapen gehigarria.– Lan-baldintzei buruzko Aholku Batzordea eratzea.

1. Lege hau indarrean sartu eta urtebete baino lehen eratuko da Aholku Batzordea. Organo aholku-emailea hezkuntzaren arloko eskumena duen sailari atxikiko zaio, eta haren helburu nagusia izango da hezkuntzako langileei aholkuak ematea, analisiak egitea eta hobekuntza proposamenak adostea.

2. Aholku Batzordearen buru hezkuntzaren arloko eskumena duen saileko burua izango da, eta sail horren, itunpeko ikastetxeetako ordezkariak handieneko enpresa-erakunde eta Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa ematen duten ikastetxe guztien artean % 10eko presentzia edo handiagoa duten sindikatuen ordezkariak izango dira batzordekideak.

3. Dagokion araudiak zehaztuko ditu Aholku Batzordearen eginkizunak, kideak eta funtzionamendu-arauak.

Justifikazioa: kendu egin da negoziazio-esparru propioak eratuta daudelako.



26. ZUZENKETA, GEHITZEKOA

Xedapen gehigarri bat gehitzen da, esparru erkide eleanitzari buruzkoa, eta honela idatzita geratzen da:

XEDAPEN GEHIGARRIA: Esparru erkide eleaniztuna

IV. tituluan ezarritakoari kalterik egin gabe, lege hau indarrean sartu eta gehienez ere bi urteko epean, Eusko Jaurlaritzak, hezkuntza-arloan eskumena duen sailaren proposamenez, sistema esparru erkide eleaniztunaren ezaugarriak onartuko ditu, ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-proiektua egiteko erreferentzia gisa. Hizkuntza-proiektu hori euskararen inguruan, eta bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean egituratuta egongo da.

Esparru erkide horrek printzipio hauei erantzun beharko die:

- a) Ikuspegi eleanitza: curriculum osatzen duten hizkuntza guztiak ikasi egin beharko dira, eta ezagutza sortzeko eta transmititzeko tresna izan beharko dute.
- b) Malgutasuna eta moldagarritasuna: hezkuntza-sistema osoan komunak diren hizkuntza-alderdietatik abiatuta, Esparruak ahalbidetu behar du ikastetxeek egokitu ahal izatea beren autonomia gauzatzean, kontuan hartuta testuinguru soziolinguistikoa, familien erabaki informatuak eta ikastetxean hartutako hezkuntza- eta pedagogia-akordioak.
- c) Inklusibotasuna eta eraginkortasuna: Esparruak ikasleen ezaugarrietara egokitutako hainbat ibilbide garatzea ahalbidetu behar du, bere gaitasunen garapenean arrakasta ez baldintzatzeko eta hizkuntza-helburuak lortzeko estrategia eta metodologia desberdinak erabiltzea ahalbidetzeko.

Justifikazioa: Zuzenketa honek jasotzen du nola gauzatuko diren hezkuntza-proiektu eleanitzak, euskara ardatz hartuta, gure bi hizkuntza ofizialen irakaskuntza eraginkorra eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza bat sustatuko dutenak, eta, era berean, ikasleen beste hizkuntza batzuen ikusgarritasuna bultzatuko dutenak. Hori guztia ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-proiektuan egituratu behar da, esparru komun baten barruan. Hiru hizkuntzen tratamendu integratua emango da, haien funtzioa eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta.